

Lagunkide eta aberkideoi, agur eta erdi!

Ia hemezortzi urte espetxeraturik egonik, eskutitz honen bitartez LABen IV. Biltzarrera hurbiltzeak sentsazio hunkigarri bat sorterazten dit, halere, bero bero agurtzen zaituztet, zuzen eta tinko jarrai dezazuen. Biltzar honetatik LAB euskal langilegoaren giltzarri nagusi bezala ateratzea da nire desiorik handiena, ekinbide horretan hautsi ezinezko gotorleku trinkoan bilakatuz, bukatzeaz dugun mendearen eta milenio berriaren erronkari eusteko.

Biltzar honi dagokinez, zeresan gutxi dut, batipat, eztabaida prozesuan eta Biltzarrean bertan zeharo aztertu eta mamitu dituzuelako ponentzia eta emendakin oro. Baina, ez legoke tokiz kanpo ospatzen ari zareten Biltzar honi aurrehistoria laburtxo bat egitea, eta horretara bideratuko dut ene asmoa gutun honetan.

LAB abian jarri zenetik hogeitaz urte bete dira. Bitartean, hausnarketa, gogoeta eta asmo anitz eta aberasgarriak bidean geratu dira. Bilakaera asko jasan behar izan dira, abagadune bakoitzean Euskal Herriaren eraikuntzarako egituretan euskal langilegoa egokitzeke. Ez da erronka erreza izan, bi estatu zanpatzaile, kapital monopolista bat eta jabego erasokorra aurrean ditugunean. Hogeitaz urte asko eta gutxi dira Arantzazuko klandestinitatean abiatu ginenetik, eta gaur espetxean dagoen Jon Idigoras aipatzea beharrezkoa dirudit, denon gogoetak eta asmoak zirelarik eraikuntza nazionalean euskal langilegoari erantzunak ematea.

Ez ditut aipatuko garai haietako izenak, pertsonaiak, baina, orduan ereiten hasi ginen hazien uzta espero dugu gaur. Hazi haien ene txokoan bere emaitza oparoak eman dituztela uste dut. Ez gura genuen guztia, agian, beharbada ametsak handiegiak izan zirelako. Hala ere, abio horretan, lan gogorrean, lagunkide asko geratu da bide ertzean, fruituak ikusi gabe. Baina, era berean, erorketa horietako bakoitzak beste hazi bat suposatu du Euskal Herriaren eraikuntza nazionalean.

Bai orduan eta bai gaur enbor berberetako ezpalak bezala darraigu sindikalismo kontsekuente bat bideratzeko asmotan, euskal langileria beharrei erantzunez, orain, orduan bezelaxe, klase gabeko gizarte baten aldeko borrokan murgilduta bait gaude. Gaur, orduak beselaxe, Estatuaren logikari, kapital basatiari eta jabego monopolistaren goseari aurre egin behar zaio, ere gehiago, ordutik hona beste elementu berri bat atera bait zaigu aurreko guztiaren eraginez: krisi ekonomiko basatia, hain zuzen ere. Eta ondorioz eragindako industri birmoldaketa edo errekonbertsioa, milaka langile langabezi eta txirotasunera jaurtikiz, Euskal Herria izanik txirotasun horren hartzaile nagusienetarikoa.



Horrexegatik, etengabeko teknologi erronken aro barriari erantzuna eman behar die LABek. Kanpoko estatuekiko menpekotasunari, Europear Komunitateak Euskal Herriaren eraikuntza nazionalari sortzen dizkion oztopoei eta estatuen arteko monopolizazioari egin behar zaie aurre. Bidea eginez doa.

Biltzar hau ematen den momentuak bi urte bete dira jadanik LAB eta ELAren arteko elkarlana hasi zenetik. Ez dute bide samurra izan LAB eta ELAren arteko harremanek orain arte, baina, bai bati zein besteari, beharrezkoa zaie helburu onetara bideratzea elkarlaneko ekinbide guztiak. Aberri Eguneko Akordio eta Dokumentu haietatik Euskal Herriko Lan Harremanetarako Marko Nazional Autonomora eta gaur egun elkarlan gaia den Lanbide Heziketa Iraunkorrera, bidea besterik ez da egin orain arte, baina, denok espero dugu euskal gizarte abertzaleak eskatzen duen islada izan dadin, Euskal Herriaren eraikuntza nazionalean oinarriak finkatuz.

Ez noa gehiago luzatzera, asko mintzatu zarete egunotan, baina denok beharrezkoak garela gogora arazi nahi nizueke, bakoitza bere alorrean, bere aportazioen bidez gizarteko gertakari guztiei erantzun bat emanez. Horretaz, abia gaitezen Autodeterminazio Eskubidea exijitzen, euskal langileria, agente sozial aktiboa den heinea, geurea den eskubide honen aldeko motor eraginkorra bilakatuz. Denok elkaturik.

Beti izango nauzuelarik ahal dudan neurrian laguntza emateko prest, nere besarkada bidaltzen dizuet hemendik, eta nere agurtxo beroa Jon lagun maitagarriari, hainbeste gora-behera egin genuelako elkarrekin aipatutako garai historiko haietan.

Adiorik ez! Beste baterarte!

GORA EUSKADI ASKATUTA!!

Logroñon, 1996ko apirilean.